

txintxarri

Baserriko produktuen erakusleiho

Herritarrek baserriko produktu ugari ikusi eta erosi dituzte Okendo plazan aurrera eramán duten azokan / 8

Gertutasunez aritzea saritu diete

Ondas saria jaso du, berriki, Euskadi Irratiko 'Faktoria Magazina'-k. Bartzelonan bitakoa kontatu dute / 6

Azaroaren 25aren bueltan antolatutako egitarauko ekimenak aurrera eramaten hasi dira / 2

Sei ostalaritza establezimenduren mokadua dastatzeko aukera dute herritarrek / 4

Larraitz Izagirrek eta Begoña Igartuak irabazi dituzte toponimiaren lehiaketako sariak / 7

Samuele Telari eta Ludovic Beier gonbidatu dituzte Zero Setteren 21. Akordeoi Jaialdira / 9

Intzako pilotari gazteak Gipuzkoako zein Ekialde txapelketa lehiatzeko sailkatu dira / 10

Ostadar Boleibola saileko kadete A taldeak elkar ezagutzeko baliatuko du aurretiko fasea / 11

AZKEN EGUNAK

BLACK FRIDAY

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

multiópticas

943 37 74 55

Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





Irakurle Txokoko kideak Ixiar Rozasekin solastu dira hil honetan aurrera eraman duten saioan. TXINTXARRI



Haurrek zirrarez entzun zituzten Maria Garcia Laderoren istorioak. TXINTXARRI

Literaturarekin hasi dira

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna ate joka da, eta horren harira udalak iragarritako egitaraua aurrera eramaten ari dira dagoeneko. Ixiar Rozas idazlearekin izan da Irakurle Txokoa, eta etxeko txikienak, berriz, Maria Garciarekin

Txintxarri

Ohi bezala, zirkuluan kokatutako aulkietan eserita aurrera eraman dute hil honetako solasaldia irakurle txokoko kideek. Parte hartzaile bakoitzak bere lekua hartuta, gonbidatuaren aurkezpena egin du Aintzane Usandizaga taldeko gidariak; Ixiar Rozas izan da oraingoan protagonista. Berak hartu du hitza gero, eta *Zirriborroak eta gero* sormen proiektuaren xehetasunak eman dizkie bertaratu direnei. Kontatu die "proiektu kolektiboa" izan dela, eta horiek izan ohi duten izaera "konplexua" duela.

2018. urtean abiatu zuten lana, Arantxa Mendiharatek Rozasi egindako proposamenaren harira. Planteamendua jasota, lanean hasi eta lehen urratsa zein izan zen kontatu du: Araban lanean ari ziren alternatiba guz-

tien zerrenda egitea. Ostean, hori abiapuntu hartuta, diru iturriak lortu, eta idazleak gonbidatu zituzten alternatiba horietatik guztietatik bat hautatu eta etorkizunean proiektatzera. Mandatu hori oinarri hartuta sortu du idazle bakoitzak bere fabula; hamar izan dira orotara.

Katixa Agirre izan zen lehena sortzeko enkargua jaso zuen aurreneko idazlea; Gasteizko Errekaleor auzoaren gaineko kontakizun espekulatiboa sortu zuen. Bere atzetik etorri ziren, gero, gainerako bederatzia. Hauek izan dira parte hartu

"LIBURUA ARGITARATZEA SORMEN PROZESUAK GERORA EKARRI DUEN EMAITZA IZAN DA"

duten idazleak: Iban Zaldúa, Danele Sarriugarte, Karmele Jaio, Belen Gopegui, Harkaitz Cano (bera izan zen Gipuzkoako alternatibaz idatzi zuen lehena), Patxi Zubizarreta, Uxue Alberdi, Lucia Baskaran, Gabriela Damian Miravete.

"Prototipo" izatea xede

Solasaldiak aurrera egin ahala, proiektuaren helburuetako bat zein zen azaldu du: "Lanak munduko edozein lekutan prototipo bat bezala funtzionatzeko aukera izatea nahi genuen. Edozein lekutan erreplikatu, kopiatu, biderkatzeko sortua eta pentsatua izan zen".

Irakurle txokoko partaide batek egindako galderari erantzunez, azaldu du baita ere hasierako asmoa ez zela liburua argitaratzea; hori "sormen prozesuak gerora ekarri duen emai-

tzetako bat" izan dela: "Guk dirua lortu dugu fabula bakoitzarentzat. Gezurra dirudi horrelako liburuxka batek zenbat diru balio duen. Produkzio moduak ere ikusarazi behar dira, zeren horiek ere badira gure baldintza baita ere. Hasieran, lehen hiru fabulak genituen berrimatu. Gerora lortu genuen laguntza bat oso-oso garrantzitsua, Daniel y Nina Carasso laguntza. Horri esker lortu genuen gainerako guztiak aurrera eramatea. Baina hasieran, ez genekien hamarrera iritsiko ginenik ere".

Berdintasuna irakurtzen

Maria Garcia Ladero ipuin kontalariaren eskutik istorio zirraragarriak entzun dituzte kultur etxeko hitzaldi aretora bertaratu ziren 6 eta 8 urte arteko dozenaka umek. Borobilean eseri eta saioaren gidariak bere burua aurkeztu die, hurrengoetan bere izena gogoratzeko truko bat emanda: "Anbotoko Marirekin gogora zaitzete, Maria baita nire izena". Jarraian, *Berdintasunean irakurketarekin jolastuz* aurrera eraman bitartean landuko zituzten liburuen gaineko azalpenak eman dizkie txikiei eta emozioz entzun dituzte, batez ere, lan horietako batzuk ezagutzen zizuztelako dagoeneko.

Literatura izan da egitarauko aurreneko bi ekimenen ardatza eta udalak prestatu duen egita-

IPIUNAK IRAKURRI ETA ENTZUN BITARTEAN BERDINTASUNA LANDU DUTE TXIKIEK

rauk jarraitu egingo du hilaren 29ra arte. Atzo, hilak 21, aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan Beldur Barik lehiaketako sariak banatu zituzten. Hauek izango dira datozen hitzorduetako batzuk (egitarau osoa 15. orrian duzue, *Agenda* atalean):

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Tailerra

Autodefentsa Feminista tailerra egingo dute, nerabeentzat, euskaraz. Izena eman nahi dutenek 943-36 39 58 telefonora deitu edo emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbidera idatzi behar dute. **Emakumearen Zentroa, 10:30etik 14:30era.**

LASARTE-ORIA Antzerkia

Belen Cruz eta Patxi Perez aktoreek *Una bofetada no es nada* antzezlanaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 3 euro balio dute. **Kultur etxea, 19:00etan.**

ASTELEHENA 25

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oriako Udalak elkarretaratzea egingo du Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean. **Okendo plaza, 12:00etan.**

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA Bideoforuma

Berdintasun gaietarako buruzko saioa aurrera eramango dute, gaztelaniaz. **Biyak Bat egoitza, 17:00etatik aurrera.**

Neurri sorta zabala, aurrekontuetarako

EH Bilduk proposamen ugari helarazi dizkio udal gobernari, "estrategikoak" iruditzen zaizkion lan ildoak buruzkoak: etxebizitza, Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen saila, herriko elkarte eta eragileak, hezkuntza eta espazio publikoa, besteak beste

Txintxarri

EH Bilduren aburuz, "ahalik eta etxebizitza parke publiko handiena" sortu behar du udalak eta horretarako izango liratekeen neurri ugari proposatu dizkio udal gobernari: etxebizitza hutsen gaineko azterketa egitea; lan hori burutu ahal izateko Errenta saila indartzea eta teknikari bat kontratatzea; eta apartamentu hutsak dituzten eta alokairura bideratu nahi dituzten jabeak dirulaguntzak ematea, baldin eta bizitokiak horretarako egokitu behar badituzte. Horrez gain, Kotxerako eremuan udalari dagokion jabetza guztia "politika publikoetara bideratzeko konpromisoa" hartzea galdegin dio.

Etxebizitzarena ez ezik, beste alor batzuk ere funtsezkoak dira EH Bildurentzat, esate baterako, udaleko Gizarte Zerbitzuen saila indartzea. Horren harira beharrezkoa iruditzen zaio bi gizarte langile gehiagoren lanpostuak sortu eta betetzeko diru partida bat gordetzea, baita departamentu horretako profesionalen zain-tzara eta eguneroko jardunean hobekuntzak sustatzera bideratutako saioek datorren urteko aurrekontuetan isla izatea ere. Horrez gain, administrazio lanpostu bat sortu eta betetzeko



EH Bilduren udal taldea. EH BILDU

adina diru jasotzea ere galdegin dio udal gobernari.

Berdintasun saila sortu

Bestalde, udal taldeak Berdintasun saila sortzeko urratsak egiten hasi nahi du eta horretarako bigarren teknikari baten lanpostua sortu eta bete behar dela adierazi du. Halaber, indarkeria matxista kasuak artatzeko protokoloa abian jarri behar dutenean, udalaren espazio bat "behar bezala egokitzeko" beharra nabarmendu du.

Adineko pertsonen dagokienez, EH Bilduk beharra ikusten du zaintza plan bat egiteko, "parte hartze prozesu bidez eta herrian

inplikaturako eragile guztiekin batera". Horri lotuta, zaintzailentzako eta zainduak diren pertsonen familientzako formakuntzara dirua bideratzea interesgarria iruditzen zaio.

Elkarte eta eragileak

Lasarte-Oriari bizia ematen dioten herriko elkarte eta eragileek jarduna bultzatzeko neurriak ere jaso ditu EH Bilduk bere proposamenen. Gauzak horrela, talde horien beharren diagnostikoa egiteko dirua gordetzea eskatu dio udal gobernari. Behin azterketa hori eginda eta beharrezan zerranda mahai gainean, udalarenak diren lokalak esleitzera ere dirua bideratzea galdegin dio.

Espazioekin jarraituta, kasu honetan publikoak direnekin, erdigunean aterpe bat eraikitzeke proiektua prestatu eta egikaritzea proposatu du koalizio subiranistak. Hezkuntzari dagokionez, berriz, eskola kontseilua indartu beharraz eta udalerriko hezkuntza plan integrala diseinatzeaz aritu da. Azkenik, beharrezkoa iruditzen zaio herriko memoriaren artxibo historikoa gorde eta zaintzeko azterketa bat egitea.

Proposamen horiek guztiak helarazi dizkio udal gobernari, dagoeneko



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Zer moduz zaude?

Aurreko asteartea institutuko ikasleekin hasi nuen eguna eta aztoratu xamar topatu nituen normalean erdi lokartuta egoten diren lehen orduan. Egoerak harritu egin ninduen eta saioa moztu nuen zera galdetzeko: Zer moduz zaude? Zer behar duzue momentu honetan? Gehienek ez zuten jakin zer erantzun. Isilik begiratu zidaten, galdera arrotza eta lekuz kanpoko balitzaie bezala. Eszena hark gogoeta sakona eragin zidan: nola da posible nola sentitzen garen eta zer behar dugun identifikatzea bezain funtsezkoa den zerbait erronka bihurtu izana?

Nago, modu automatikoan "ondo" erantzutera bultzatzen gaituen gizarte batean bizi garela, benetan horrela ote den pentsatzen gelditu gabe. Emaitzak, jomugak eta produktibitatea lehenesten irakasten digute, eta jardutea ongizatea baino gehiago baloratzen duen sistema batean hazten gara. Beraz, ez da harritzekoa nola gauden galdetean, nondik hasi ez jakitea.

"Zer moduz zaude?" galderak formalismo bat dirudi, gizalege huts bat, baina askoz gehiago izateko potentziala du. Bere baitan, elkartzeko eta entzuteko benetako gune bat irekitzeko aukera ezkututzen baitu. Nahita formulatzen dugunean, gaia aldatzeko presarik gabe, mezu indartsu bat bidaltzen dugu: axola didazu, eta axola zait nola sentitzen zaren. Ez da galdera bat bakarrik; zaintza-ekintza bat da.

Hala ere, ez da nahikoa galdetzea. Entzuten ere ikasi behar dugu. Benetan entzutea, esaten digutena eten edo gutxietsi gabe. Ikasgelan, adibidez, konturatu naiz nire ikasleei epairik gabe entzuten dieran uneak direla adierazteko seguru sentitzen direnak. Nola dauden galdetzeak eta erantzuteko denbora emateak beren emozioekin konektatzea ahalbidetzen diela, eta, pixkanaka, izena jartzen ikasten lagunduko dielakoan nago.

Dena den, arazoa ez da bakarrik ez dakigula erantzuten, baizik eta ez gaudela ohituta ariketa hori besteekin edo geure buruarekin egitera. Egunean zenbat aldiz galdetzen diogu geure buruari zer moduz gauden? Zenbat aldiz ematen diogu baimena geure buruari gelditzeko, arnasa hartzeko eta sentitzen dugunari erantzuteko? Deskonexio emozionala ez da norbanakoaren gabezia bat, baizik eta ongizatea barrutik hasten dela ahazten duen gizarte baten sintoma bat.

Haurrei eta gazteei "zer behar duzu ondo egoteko?" bezalako galderak erantzuten irakastea ez da garapen emozionalerako tresna bat soilik, prebentzio-ekintza bat baizik. Osasun mentaleko arazoak larriagotu egiten dira garaiz detektatzen ez direnean, eta nola sentitzen garen identifikatzen ikastea laguntza bilatzeko lehen urratsa da. Eta, hortik haratago, agian "Zer moduz zaude?" xume hori serio hartuko bagenu, jende asko ez litzateke hain bakarrik sentituko.

Geure buruari zein ingurukoei "zer moduz zaude?" galdetzeko eta zintzoki erantzuteko gaitasunak eragin sakona du geure buruarekiko eta besteekiko dugun harremanean. Autoezagutzarako eta enpatia lantzeko ariketa bat da, gure gizatasunarekin berriz konektatzera gonbidatzen gaituena, batez ere gure emozioak alboratzera bultzatzen gaituen mundu batean. Eta zu, zer moduz zaude?

Osasun sistemari buruzko solasaldia

Lasarte-Oriako EH Bilduk mahai inguru bat aurrera eramango du hilaren 28an, 18:00etan, Antonio Mercero aretoan: EAEko osasun sistema publikoaren

diagnostikoa. Hauek izango dira hizlariak: EH Bilduren legebiltzarkide Rebeke Ubera, EH Bilduko osasun idazkaritzako kide eta mediku Karlos Ibarguren eta EH Bilduko herriko zinegotzi eta gizarte langile Oihan Agirretxe.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?



30 EUROKO BONUA ZOZKATUKO DUGU!

Eman izena azaroaren 30a arte (barne)





Semblante Andaluz elkartean aurkeztu dituzte aurtengo pintxoak. TXINTXARRI

Mokaduz mokadu eta tabernaz taberna egingo dute bidea

Aterpea merkatarien elkarteak X. Pintxo Bidea aurrera eramango asteburu honetan, hilaren 22, 23 eta 24an

Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteak X. Pintxo Bidea aurrera eramango du asteburuan, hilaren 22, 23 eta 24an. Hori iragarri eta bertan parte hartuko duten mokaduen aurkezpen eta dastaketa egin dute, berriki, Semblante Andaluz elkartean. Suharri jatetxeko Xabier Santxo izango da epamahi profesionala, eta, berarekin batera, herriko zenbait elkarte gastronomikoetako ordezkariak

Herriko bost taberna zein jatetxek –sei ziren hasieran, baina azken unean horietako batek

huts egin du. Sariketa profesionaletik kanpo geratu den arren, ibilbidean parte hartuko du, eta herritarren gustukoena erabakitzeke norgehiagokan erabakitzeke kokatutako dastatu zituen Xabier Santxo sukaldariak eta herriko lau elkarte gastronomikoetako ordezkari banak (Buruntz-Zazpi, Palomo Linares, Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea eta Saustaxo). Horiek osatu dute epamahi profesionala, nahiz eta sukaldariaren iritziak besteenak baino apur bat gehiago balioko duen.

X. Pintxo Bideko jakiak

Elaborazio ederrak kozinatu dituzte herriko sei ostalaritza establezimenduk. Gaur hasi eta igandera bitarte izango dute herritarrek horiek dastatzeko aukera. Hauek dira parte hartzaileak: Araeta, Arkupe, Buenetxea, La Geselina, Herriko Etxea eta Arima



Araeta sagardotegia

Txangurro erregosi gyoza itsaski krema eta azafrai krokantearekin



La Geselina

Oilaskoa ziape eta ezti saltsarekin, piper erreak eta rukula.



Arkupe taberna

Galeper arrautzak bexamel eta mamiiekin



Herriko Etxea

Olagarro frijitua hirugihar eta gazta terrina gainean, kimutxi patata min kremaz lagunduta.



Buenetxea taberna

Olagarro eta otarrainxa entsaladila ziape eta ezti saltsarekin.



Arima Gastrotaberna

Izokin eta aguakate natxoak rukula, tomatetxo eta siratxa saltsarekin.

Lehiaketara aurkeztutako jaki bakoitza mahai gainean aurkeztuta, guztiei "sekulako itxura" hartu diela azaldu zuen Santxok. Horiek banan-banan probatu zituen eta urarekin ezkondu, mokadu bakoitzaren osagaien zaporeak elkarrekin nahas ez

zitezten. Elkarte gastronomikoetako ordezkariak, Santxok bezela egin zuten; horiek ere ura edan zuten mokadu eta mokadu artean, baina, izan zen freskagarri bat aukeratu zuenik ere.

Papera eta boligrafoa eskuetan hartuta bildu zituzten denek

ala denek euren iritziak, eta dastaketa amaitutakoan, sobre batean gorde zituzten euren kalifikazioak. Pintxo bidea amaitu eta herritarren iritziak jaso ostean, jakinaraziko da epamahi profesionalaren irabazlea nor den.

Disney-ko pertsonaiez beteko da, Inauterietan, Lasarte-Oria

Inauterietarako mozorroak prestatzen has daitezke lasarteoriatarrak. Disney gaiak jaso ditu bozka gehien

Txintxarri

2025 urteko Inauteriek badute gaia: Disney. Parte hartze prozesu bidez erabaki da hori, eta horrek izandako hiru pausoak ekarri ditu gogora Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonsok.

Lehenik herritarren 255 proposamen jaso zituen udalak eta horiek guztiak 70ra murriztu zituzten. Konpartsekin egindako bileran bostera murriztu zituzten: Munduan zeharreko bidaiak (turistak), Zirkua, Disney, Erdi Aroa eta Fantasia/Mitologia. Azken fasean, berriro herritarren iritzi

jakin nahi izan dute eta guztira, internet bidez edo txartelen bitartez 415 bozka jaso dituzte. Honakoak izan dira emaitzak: Munduan zeharreko bisitariak, 74 puntu; Zirkua, 105 puntu; Erdi Aroa, 32 puntu; Fantasia/mitologia, 123 puntu; eta Disney, 133 puntu.

Gaia aukeratu ostean, Inauterien egitaraua prestatzen hasiko direla aurreratu du Alonsok. Horregatik, ohiko konpartsak edo talde berriak zein herritarrek hilaren 26an, 18:30ean, Gaztelekuan egingo den lehen bilerara deitu ditu.

Haurren eskubideak aldarrikatzeko ekimena

Haurren Mundu Eguna ospatzeko jardurak iragarri dituzte hilaren 27rako, Antonio Mercero gunean

Txintxarri

Udalak Haurren Nazioarteko Eguna ospatuko du hilaren 27an, Okendo plazan; haur lasarteoriatarren eskubideak eta garapen aukerak balioan jartzeko ekimen sorta bat iragarri du horretarako.

Egitasmoaren helburua da haur guztiek, munduko edozein lekutan jaiok izanda ere, osasuna, hezkuntza, berdintasuna eta babesa izateko eskubidea dutela gogoratu eta aldarrikatzea. Festa bereziki Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleei zuzenduta dago, eta maila horretako Sasoeta Zu-



Ekimena iragartzeko afixa. L-0 UDALA

maburu eta Landaberri Ikastolako ikasleak bertara joan daitezten gonbidatuko dituzte antolatzaileek. Ospakizunean 2030 Agendari eta Garapen Jasangarriaren Helburuei balioa emango zaie, pobrezia ezabatze ingurumenaren babeseraino hainbat gai barne hartuta.

17:00etan hasiko da egitasmoa Okendo plazan. Partaide guztiei ongietorria egin, eta ipuin kontaketa saioa bat aurrera eramango dute, baita sormen tailertxo bat ere. Ondoren, txotxongilo emanaldi bat ikusteko aukera izango dute haurrek, eta tonbolaren txanda izango da gero. Amaitzeko, agurra eta sorpresa izango dira.

Ekimenak tokiko entitate eta merkatarien laguntza zabala izan du, hala nola, Kool Studio eta Amali jolas dendarena.

Lasarte - Oria 2024

Azaroaren 22^{tik} 24^{ra}

X Aterpea Pintxo Bidea

Ostirala 19:00etatik 21:00etara
Larunbata eguerdian eta 19:00etatik 21:00etara
Igande eguerdian

Pintxo Aterpea
3,00€



ARIMA GASTROTABERNA
izokin eta aguakate natxoak rukula, tomatetxo
eta siratxa saltsarekin



ARKUPETABERNA
Galeper arrautzak bexamel eta mamiekin



HERRIKO ETXEA JATETXEA
Olagarro frijitua hirugihar eta gazta terrina
gainean, kimutxi patata min kremaz lagunduta.



ARAETA SAGARDOTEGIA
Txangurro erregosi gyoza itsaski
krema eta azafrai krokantearekin



LA GESELINA KAFETEGIA
Oilaskoa ziape eta ezti saltsarekin, piper
erreak eta rukula



BUENETXEA TABERNA
Olagarro eta otarrainxka entsaladila ziape eta
ezti saltsarekin

Parte hartu!
500€

500€ zozketatuko ditugu
erosketa-bonoetan



Txintxarri

Gertutasuneko saiorik onenaren Ondas saria jaso du, berriki, Euskadi Irratiko *Faktoria Magazinak*. Bartzelonako Liceu antzokian aurrera eraman dute sari bana-keta, eta bertan izan da aipatu irratsaioa osatzen duen lantaldea; horien artean bi lasarteoriatar: Maider Segurola Dorronsoro eta Asier Odriozola Gonzalez. Mikel Retegi herritarra ere lantalde horretako kide da, baina bera ez da Kataluniako hiriburuan izan.

Segurola arduratzen da saioa zuzendu eta gidatzeaz, eta mikro-foñoa eskuan hartuta, Euskal Herriko hainbat lekutatik zuzeneko kontakizunak egin ohi ditu Odriozolak. Retegi, berriz, teknikaria da, eta, besteak beste, irratia esatarien ahotsak etxeetara egoki iristeko ahaleginak egiten ditu.

Horiekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak, izendapenaren eguna eta saria jasotzearen iluntzea nola bizi izan dituzten galdetzeko.

Kontatu dute "ezustean" harrapatu zirela izendapenak berak, eta, hasieran, "txantxa" zela uste izan bazuten ere, gerora, albistea egiazkoa zela jabetuta, "poz handiz" jaso zutela.

Lantaldea ia osorik egon da Bartzelonan, eta elkarrekin esperientzia hori bizi izana ere "ederra" izan dela azpimarratu dute.

Bartzelonan jaso eta Donostiara ekarri dute hegaldun zaldia

Ondas saria jaso du Euskadi Irratiko 'Faktoria Magazina' irratsaioak



Maidor Segurola Dorronsoro eta Asier Odriozola Gonzalez, saria eskuetana. M. SEGUROLA

MAIDER SEGUROLA DORRONSORO

Ezustean harrapatu gintuen izendapenak, ez genekielako hautagaitza aurkeztu zenik ere. Jakin genuenean, une horretan geunden testuinguruagatik, uste genuen txantxa bat zela. Gero, behin ulertuta albistea egiazkoa zela, lehendabiziko pentsamendua izan zen atzera begiratzea eta ohartzea, sari hori pare-parean tokatu bazitzaigun izan zela Euskadi Irratian, eta bereziki

Faktorian, hogeitaz hainbeste jende lan egin duelako, eta hori egiteko molde jakin bat izan dugulako. Hautagaitzara aurkeztu zen guk iaz Baionan egin genuen saio bat, eta horrek berak ere ilusio berezia egin digu; azken finean, oso argi uzten du gu nori ari gatzaitzian hizketan. Gure hartzailea da euskaraz dakiena eta euskal komunitatea osatzen duena, berdin du Baionan egon, Iruñean edo Bilbon.

Bartzelonako esperientzia, berriz, hitzez azaltzea oso zaila da. Aurretik gorabehera dezente izan ditugu, gauza asko prestatu behar zirelako, bai sari banaketarako, bai hurrengo egunean handik egin genuen saioa aurrera eramateko. Hori kontuan hartuta, nahiko aste eroak izan dira. Nola ez, sari banaketan lantalde osoa bertan egoteak oso berezia egin zuen une hori bera eta baita Bartzelonako egonaldia ere.

Esan bezala, hurrengo eguneko saioa Bartzelonatik egin genuen; beteta, harro sentitzen ginen. Oso-oso talde elkartua gara Faktoriako. Oso momentu gozoan etorri zaigu saria, beraz, une gozo hori areagotu egin du aintzatespenak. Nire kasuan, programa zuzendu eta gidatzea dagokit, baina hori ezinezkoa zatekeen daukagun taldea edukiko ez bagenu. Talde lana da, egunero-egunero elkarrekin ari gara saioa osatzen. Oraindik ere aparretan gaude, pozik.

ASIER ODRIOZOLA GONZALEZ

Erabat ezustean eta sormen ikastaro baten erdian jakin genuen. Bi lankide *Faktoriari* Ondas Saria eman ziotela esanaz aretoan sartu zirenean, pentsatu genuen ikastaroarekin zerikusia zuen jolasen bat zela. Uste dut taldean lan egiteko modu bat eta entzulearen intereseko diren gaiengandik hurbil lan egitea errekonozitu direla.

Bartzelonako esperientzia, aldiz, aparta izan da lanari dagokionez eta baita ospakizun begiradatik ere. Maidorrek eta Mikelek saria jaso zutenean, baina batez ere han esan zituzten hitzak entzutean harro sentitu nintzen eta pozik, oso pozik. Katalanez zein ongi egiten zuten, horrek harritu ninduen. Gero, han egin genuen programa borobil atera zitzaigun eta horrek ere areagotu egin zuen gure goraldi sentsazioa. Ondoren etorri zen ospakizuna, talde osoa elkarrekin egotea, tartean paperik ez zela, ederra izan zen. Taldea oraindik ere gehiago batu duen esperientzia izan da Ondas sariarena.

Bigarren izan da Labaka, lehen finalaurrekoan

552 puntu lortuta, bigarren sailkatu da lasarteoriatarra Oiartzungo finalaurrekoan. Finalaren aurretik beste bi saio jokatu dira; Zarautzen (hilak 24) eta Arrasaten (abendua 1)

Txintxarri

Finalaurrekoetan murgildu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Hiru saio iragarri zituzten azken aurreko fasean, eta, horietan lehena hilaren 17an aurrera eraman zuten Oiartzunen. Sei bertsolari aritu ziren ohol-tza gainean, horien artean, Ane Labaka Mayoz lasarteoriatarra.

Beñat Gaztelumendi Arandia bertsolari añorgarra izan da garaile, eta horri esker lortu du abenduaren 14an Donostian jokatu den finalerako zuzeneko pasea. Bere atzetik, Laba-



Ane Labaka Mayoz Oiartzungo finalaurrekoan kantari. BERTSOZALE.EUS

ka herritarra izan da puntu gehien lortu dituen; 552 punturekin bigarren sailkatua izan da. Gauzak horrela, Zarautzen (hilaren 24an) eta Arrasaten (abendua 1ean) finalerdiak jokatu dituzten gainerako partaideen puntuazioaren arabera erabakiko da finaleko bere parte hartzea. Abendua 1ean argituko da hori.

Hasierako eta bukaerako agurrak kenduta, bost ariketa egin behar izan zituen, lasarteoriatarrek, mikro aurrean. Ane Ezenarro Beristain gai jartzaileak agindutakoari jarraituta, askotariko testuingurutan kokatuta egin behar izan zuen kantuan; Gipuzkoa airetik grabatzen ari den drone erabiltzailea izatea egokitu zitzaion, eta, Asier Azpiroz (saioan parte hartu duen den beste bertsolarietako bat) tatuatzailearen bezero gisa ere aritu zen hitz neuratuan.

Bertso Asteko jarduerak

Ttakunek, udalak eta Earra bertso eskolak hilaren 26tik 29ra aurrera eramango dute Bertso Astea. I. Imanol Lizardi sariketa izango da ekimen nagusia, baina horren aurrekari gisa izango dira ere bertso solasaldia eta bertso poteoa ere. Jarraian dituzue ekimenak:

- **Bertso solasaldia.** Hilaren 26an, 18:00etan, osasun zentroko bigarren solasairuan.
- **Bertso-poteoa.** Hilaren 28an, 18:30etik aurrera, erdigunean.
- **Imanol Lizardi sariketa.** Hilaren 29an, 18:00etan, Mirentxun.



Ezker-eskuin: Begoña Igartua, Iñigo Gonzalez, Jon Antxordoki eta Larraitz Izagirre. TXINTXARRI

Larraitz Izagirre eta Begoña Igartua garaile

Gure herriko toki izenei buruzko bigarren lehiaketako sariak banatu dituzte Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta TXINTXARRI aldizkariak. Galdera nahiz argazki erronketan ehun jokalaria baino gehiagok parte hartu dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako toponimoen garrantzia ikusarazten jarraitzen dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta TXINTXARRI aldizkariak, lankidetzan. Uste baino garrantzitsuagoa den jakintza alor hori ludikoki bistaratzea egokia dela iritzita, bigarren lehiaketa bat aurrera eraman dute urri eta azaroan zehar: aurreneko bi asteetan hamarna galdera erantzun behar izan dituzte lehiakideek, eta, hirugarrenean, garai batean Zubiaurre etxea zegoen tokian gaur-gaurkoz zer dagoen adierazi, herri aldizkariaren erredakziora argazki bat bidalita.

Hogei galdera horietatik gehienak asmatzeaz gain argazkia ere zuzen bidali zuten artean egindako zozketan Larraitz Izagirrerri egokitu zaio Nekatur Nekazal Turismo Elkartearen zerrendako nekazal etxe batean gau bat igaro eta hurrengo egunean gosaltzearen saria. Bestalde, jokatu bitartean gure herri-

ko toponimiaz ikastera animatu diren parte hartzaile guztien artean Avenida taberna-jatetxe-ko bi menu berezi zozkatu ditugu eta Begoña Igartuak irabazi ditu. Banaketa ekitaldia Hipodromo etorbidean egin zuten eta sustatzaileen izenean Lasarte-Oriako Udaleko Euskara sailko zinegotzi Jon Antxordokik eta TXINTXARRI-ko arduradun Iñigo Gonzalezek eman zizkieten ongi irabazitako sariak aipatu bi lasarteoriatar horiei.

Ekimen "arrakastatsua"

Hiru asteko lehiaketa horretan 130 pertsona inguruk parte hartu dute eta ekimenaren antolatzaileek azpimarratu dute "arrakastatsua" izan dela ekimena, ez soilik ehun

ABENDUAN AMAITUKO DUTE TOPONIMIARI BURUZKO ELKARLAN EGITASMOA UDALAK ETA TXINTXARRI-K

pertsona baino gehiago animatu direlako jokatzera, baizik eta horiek guztiek Lasarte-Oriako toki izenen ezagutzan sakondu dutelako, erronkako galderak erantzun bitartean www.toponimia.lasarte-oria.eus webgunean saltseatu dutelako. Udalak eta Ikermap enpresak prestatu zuten atari digital hori eta 700 toponimo eta 500 argazki baino gehiago erregistratu zituzten bertan.

Orri hau osatzen duten *Toponimiaren txokoa* izeneko atal berezian argitu dute antolatzaileek misterioa, hau da, zehazki zer dagoen garai batean Zubiaurre etxe historikoa zegoen toki berean. Lasarte-Oriako toponimiaren garrantzia ikusarazteko egitasmoa datorren hilabetean amaituko dute udalak eta TXINTXARRI-k: arestian aipatutako sekzio horretan argitaratuko dute azken artikulua abenduaren 13ko 1.691. zenbakian.

Eduki guztiak <https://txintxarri.eus/bereziak/lasarte-oria-ko-toponimia> kanalean dituzue.

Toponimiaren webgunea zure eskura:
toponimia.lasarte-oria.eus
LASARTE-ORIAren ondarea



Zubiaurre etxearen kanpoaldea, 80. hamarkadan. L-0 UDALA

Bizitoki, tailer mekaniko, garaje eta gaztetxe izandako etxe historikoa

Garai batean Zubiaurre etxe historikoa zegoen tokian gaur egun zer dagoen asmatzea izan da toponimiari buruzko bigarren lehiaketako azken erronka. Dagoeneko existitzen ez den eraikin horren historian arakatu dugu hilabete honetako Toponimiaren txokoa atalean, El Diario Vasco hedabidean Lasarte-Oriako kronika 40 urte baino gehiagoz idatzi zuen Txema Valles kazetariaren laguntzarekin.

Zubiaurretik gertu (Kale Nagusiaren hasieran zegoen, Plazaolako trenbidearen ondoan, eta beste aldean errementaldegia bat zegoen) jaio zen Valles, zehazki, Torre etxean, 50. hamarkadaren amaieran. Gogoratzen du garai horretan etxearen beheko zatian Yerobi-Bengoetxea familia bizi zela eta tailer mekaniko bat ere bazutela bertan. Goialdea, berriz, Pablo Mutiozabal mediku ezaguna zenaren aitak (Pablo Mutiozabal zen bera ere) erabiltzen zuen garaje gisara. Valles txikia zeneko pasadizo bat ekarri du gogora: "Bertan ikusi nuen 1965eko munduko txirindularitza txapelketa; abuztu-irailen jokatu zuten".

Kazetari erretiratuak esan duenez tailer mekaniko hori 60. hamarkada amaierara arte izan zuten han eta gero Blas de Lezo kalera eraman zuten. Torre etxean bizi izan zen Valles 1969ra arte eta gero Zabaletara joan zen. Urte batzuen ostean berriro izan zuten Zubiaurreko jardunaren berri, dagoeneko El Diario Vasco-ren berriemaile zenean gure herrian. "1986. urtea izango zen okupa batzuk etxe horretara sartu eta gaztetxe gisa erabiltzen hasi zirenean", oroitu du. "Gogoratzen naiz data horretaz, Lasarte-Oria udalerrri independente gisa eratzearekin (urte horretako otsailaren 15ean eman zioten estatus hori) bat egin zuelako". Zubiaurre herriko gazteen topaleku izan zen pare bat urtez, herritarrak zehaztu duenez. Bertara mugitu aurretik, Ama Brigitarren komentu ondoko hiltegi izan zenean aritu ziren, eta, ondoren, "eskola berriak" deitzen zituztenetara joan ziren. Bitxikeria gisa, artikulua hau ilustratzen duen Zubiaurre etxearen argazkia garai horretakoa zen, balkoietako batean "Gazte Leku" jartzen duen egurrezko kartel gorri bat zintzilikatuta ikus daitekeelako. Horren aurretik bizitoki, tailer mekaniko eta garaje ere izan zen, gutxienez.



LASARTE-ORIAren
ondarearen webgunea



Lasarte-Oriako Toponimia gehiago aurkitu ditzazkezu
qr kode hau eskaneatuta



TXINTXARRI

Baserrikoaren erakusleiho

San Martin egunaren bueltan baserriko produktuen azoka aurrera eraman zuten Behemendi elkarteak eta udalak, hamargarren aldiz, Okendo plazan. Herritarrek kalitatezko produktu freskoak ekoizleei zuzenean erosteko aukera izan zuten, baita haiei buruz galdetu

edo probatzeko ere. Barazkiak, lore eta landareak, ezta, gazta, pateak, ogia... askotariko eskaintza izan dute zabalgunean jarritako dozena bat postutan. Horien artean, lasarteoriarrak Telleria baserria eta hazi ekologikoen ekoizlea izan ziren.

Elkartasun kilometroak

Valentziako hondamendiak kaltetutakoentzat materiala biltzen ari den herritar boluntario taldeak txokolate jan solidarioa gauzatu zuen Donostiako Motard motorzale elkarte kideekin batera. Antonio Mercero gunearen atari ondoan jarri zuten postua hilaren 16an. Itsulapikoan jasotako dirua gasolina erosteko erabiliko dute, bildutako materiala Valentziara eramateko.



TXINTXARRI

Azken proba, Guadalajaran

Erabilgarritasuneko Kirol Mendetasuneko Espainiako Kopa eta Txapelketa erabakiko dira Guadalajarako Fontanar herrian. Bertan parte hartuko dute Xuhakan Txakur Elkarteko bost bikotek: hiruk, oinarrizko mailan; laugarrenak, I. graduak; eta, bosgarrenak, II. graduak. Lehiatzeaz gain diziplinaz gozatzea da guztien helburua.



XUHAKAN ELKARTEA



Antonio Mercero aretoan egin zuten aurkezpen ekitaldia. TXINTXARRI

Jauzi Ekosoziala eragile ekologista aurkeztu dute

Donostialdea edo Buruntzaldea hartuko dituen taldea osatu nahian, helburuak eta lan ildoak ezagutarazi dituzte bi kidek

Txintxarri

Hamabost herritar bertaratu ziren Jauzi Ekosoziala eragileak hilaren 15ean Antonio Mercero aretoan egin zuen aurkezpen ekitaldira. Donostialdea edo Buruntzaldea hartuko dituen taldea osatu nahian deitutako saioan, helburuak eta lan ildoak ezagutarazi zituzten gizarte mugimendu ekologista horretako bi kidek.

Euskal Herriko mugimendu ekologistak 2022an egindako hausnarketa eta eztabaidatik ondorioztatu zuen, zerbait berria eta bateratua egiteko beharra zuela. Une horretan, "beharra baieztatu" zuten, baina ez zuten erabaki eragile berri bat sortu edo jada zeudenen arteko koordinazio berri baten alde egingo zuten. Udan egindako *Haien luxua gure faktura* kanpainaren ondoren, iraila-urrian berriro heldu zioten hausnarketa estrategikoari, aurtengo martxora arte luzatu dena. Eragile berri baten alde egitea erabaki zuten eta maiatzean aurkeztu zuten orain tokian toki ezagutarazten ari diren Jauzi Ekosoziala.

Gizarte mugimendu kultural eta ekintzailea da, Hego Euskal Herriko ekologismoak jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa ematea bide duena. Ekosoziala, krisi ekologikoa soziala ere badelako; sozioekonomikoa, bai kausetan bai ondorioetan. "Dentzako etorkizun desiragarria eta bizigarria izateko trantsizio ekosozial justua" nahi dute, horretarako ekologia kezka sozia-

len erdigunean jarriz eta pauso errealek emanez.

Xede du "larrialdi klimatiko eta ekologikoari aurre egiteko Euskal Herrian justizia sozialean oinarritutako trantsizio ekosoziala bultzatzeko, horretarako borroka kulturala disputatuz eta gehiengoak artikulatuz". Bide horretan, hiru helburu nagusi ere zehaztu zituzten: trantsizio ekosozialaren gaineko gogoeta zabaltzea, ekologismoaren zeharkako lanketa gainerako eragile eta borroka sozialekin, eta alternatiba bizigarriak proposatzea, erresistentzia eta proiektu zehatzen kontrako logikatik haratago.

Hilaren 28an, Xirimiri

Lehen bilerak egiten ari dira egitasmoa ezagutarazteko eta beren nahia Donostialdean edo Buruntzaldean talde bat osatzea da. Horretako, hilaren 28an bilera egingo dute Xirimiri elkartearen eta beste herrietan aurkezteko dute beraien proposamena.

Bertaratu zirenei banatutako eskuorrian, Jauzi Ekosozialaren helburuekin batera, bere izaera definitzeko zenbait gako jaso zituzten: aktibismo berri-tzailea, etorkizun bizigarria eta justizia soziala, besteak beste.

**HILAREN 28AN,
OSTEGUNAREKIN,
BILERA BAT AURRERA
ERAMANGO DUTE
XIRIMIRI ELKARTEAN**



Samuele Telari (ezkerrean) eta Ludovic Beier (eskuinean), elkarrekin jotzen. TXINTXARRI

Akordeoiaren aukera zabalak erakutsi dituzte

Zero Sette Akordeoi Orkestrak Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolatutako 21. Nazioarteko Akordeoi Jaialdia ospatu dute kultur etxean. Bi ordu iraun dituen saioan, instrumentu berarekin doinu oso bestelakoak lor daitezkeela erakutsi dute

Maitane Aldanondo

Italiatik eta Frantziatik herrira ekarri zituen Zero Settek aurtengo erakustaldiko protagonistak. Ohi bezala, Ainhoa Aiartzak aurkeztu zuen saioa eta oholtzara deitu zuen lehen gonbidatua Samuele Telari izan zen. Bakarleri, instrumentalista eta akordeoi irakasle italiarrak hainbat nazioarteko jaialditan

parte hartu du bere ibilbidean. Adi jarraitu zituzten bertaratutako akordeoi jotzailearen eskuen mugimenduak eta intentsitatean gorabeherak, malenkoniatik zeuden doinuak eskainiz. Bosgarren pieza amaitu zuenean, txalo zaparradaz gain, zenbait "bravo" ere oihukatu zizkioten.

Emanaldiak ia ordubeteko bidea egina zuen, Telari agurtu eta

Aiertzak Beier-en ibilbidea errepasatu zuenean. Musikari, egile, konpositore eta moldagilea, erregistro bakarrera mugatu beharrean, akordeoia moldagarri bilakatu du, jazzaren, musika herrikoia eta fusioaren zaletuak erakartzeko gai dena. "Bere erritmo, teknika eta sormen suitsuak hitzik gabe utziko gaituzte", aurreratu zuen aurkezleak. As-



'La Revoltosa' ikuskizunaren uneetako bat. TXINTXARRI

Zarzuela ospetsuenetako bat

Sasibill Elkarte Lirikoak *Neska bihurria (La Revoltosa)* zarzuelaren emanaldia egin du ostiral iluntzean Manuel Lekuona kultur etxean. Auditorioa bete egin dute herritarrek bere libretoaren eta Ruperto Chapiren muskaren maisutasunagatik genero horretako obra onenetakotzat jotzen denaz gozatzeko. Preludioa ilunpetan jo dute musikariek, oihala itxita eta partituras irakurtzeko argi txiki batzuek bakarrik argizatuta. Hori amaituta, ehuna zabaldu, eta Madrilgo auzune bateko patioa bistaratu dute bertaratutakoek. Bizilagunak aztoratuta ditu Mari Pepak; gizonaek bere edertasunak liluratu dituelako eta emakumezkoak, berriz, beren senarrak limurtzen dituelako. Itxuraz, Felipe da eragin ez duen bakarra; eta elkar mesprexatu arren, bata besteaz erabat maiteminduta daude. Bikotearen eta bizilagunen arteko gorabeherak barre eta irribarre ugari eragin dizkiote publikoari.

matu zuen. Doinu artean, ezjakinenak ere atzeman du The Police taldearen *Every breath you take* edota Nino Rotak *El padrino* filmerako idatzitako kanta italiarra. Tradizio frantsesari helduz, valtz bat ere jo du eta jazzak edo erritmo brasildarrek ere ez dute hutsik egin bere bakarkako saioan. Melodika ere jo du, harmonika eta akordeoi baten arteko uztarketa, putz eginez eta botoiak sakatuz musika sortzen duen tresna.

Bi orduetara bidean bukatu zuenean, Telari deitu zuen ager-

tokira. "Ikaragarria da ikustea nola musikari bakarleri batek, kasu honetan akordeoilariak, beren talentu eta pasioarekin Manuel Lekuona kultur etxea doinu ederrrez jantzi eta apaindu duten", adierazi zuen Aiartzak. Ondoren, bertaratutakoentzako "opari gisa", bi gonbidatuek soinu frogan lehenengoz elkarrekin jotzea erabaki zutelara esan zuen. Azkenik, Willy Berasaluzek egindako oroigarri bana eman zieten Agustin Valdivia alkateak eta Zero Setteko zuzendari Jose Manuel Crespok.

Lan eta ikuskizun berri bana ondu dituzte Katxiporretakoek

'Zerua lapurtu dute!' eta 'Ostirala iritsi da!' abentura zirraragarrietan murgilduko dira pailazo eta lagunak

Txintxarri

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez ipuin-disko ilustratu berria argitaratu dute, Aranzadi zientzia elkartearekin elkarlanean: *Zerua lapurtu dute!*. Hiru pertsonaia horiek Birtxi

farozaia izango dute bidelagun bidaia honetan eta erakutsiko dute zeinen garrantzitsua den natura zaintzea. Helburua da argi kutsaduraren eta pantailaren erabileraren kalteak azalera. Erakutsiko dute zeinen garrantzitsua den natura zaintzea. Helburua da argi kutsaduraren eta pantailaren erabileraren kalteak azalera.

Lan horren berri eman eta gutxira ikuskizun bat estreinatuzera doazela iragarri dute Katxiporreta kooperatibako kideek: *Ostirala iritsi da!*. Josu Txapartegi *Txapas* musikari, idazle eta irakasleari aitortza egingo diote, *Txapasen liburu magikoa* ipuin eta disko ilustratuaren jarraipenarekin. Katxiporretako kideek iragarri dute Pirritxek atsedean hartuko duela eta Lore (Joanes Echeveste) pertsonaia berria ariko dela ohiko abenturazale taldearekin.



'Zerua lapurtu dute', pailazoen ipuin-disko ilustratu berria. KATXIPORRETA

Igerilariak, lanaren lehen fruituak jasotzen

Buruntzaldea IKTko gazteek Neguko Ligako bigarren jardunaldiari egin diote aurre Hernanin. Proba tekniko eta luzeagoetan jardun dira eta hamabost marka ondu dituzte. Hurrengo proba Lasarte-Orian izango dute abendu erdialdean

Txintxarri

Gipuzkoako Neguko Ligako 2. jardunaldia ospatu zen Hernanin eta Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta maila absolutuko hamabost igerilari izan ziren lehian.

Lehen jardunalditik entrenamenduen eta proben maila igo zuten igeriketa taldeko kideek eta Hernaniko saioan aukeratutako banakako probak 50 m. tximeleta, 400 m. lau estilo, 200 m. libre eta bular zein bizkar eta bular estiloko 100 metroko probak izan ziren. Saio amaitzeko estilo libreko 4x100 m. erreleboan ere parte hartu zuten taldeko kideek.

Igerilari gazteek ederki egin zieten aurre probei eta horri esker, Buruntzaldea IKTko ordezkariak hamabost marka pertsonal ondu zituzten:

- Ander Martinez: 100 m. bular eta 50 m. tximeleta.
- Ibon Elola: 200 m. bular.
- Oihan Matute: 100 m. bizkar eta 200 m. bular.
- Mario Amantegi: 100 m. bizkar.



Hernanin izan ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

- Mayi Gorostegui: 100 m. lau estilo.
 - Miren Sarobe: 100 m. bizkar.
 - Iker Gorostegui: 100 m. bizkar eta 200 m. bular.
 - Amaïur Iparraguirre: 100 m. bular eta 100 m. libre.
 - Ane Meyer: 400 m. lau estilo eta 100 m. bular.
 - Laida Guerrero: 50 m. tximeleta.
- Igeriketa taldeko arduradunek gazteek jardunaldian zehar izan zuten ilusio eta grina nabarmendu dute. Horrez gain, lanaren

ondorioz emaitzak pixkana iristen ari direla eta "denboraldiak bere epean zehar zer emango ote digun ikusteko irrikaz" dardela ere aurreratu dute. Hurrengo hitzordua, Maialen Chourraut kiroldegian izango dute, abenduaren 15ean.

Baina aurretik, hilaren 23an, Ordiziako Majori igerilekuan taldeko benjaminek ligari hasiera emango diote eta alebinek euren ligako bigarren saioa izango dute.

Gipuzkoako txapelketako aurretiko fasea, ezagutzekoa

Ostadar Boleibola saileko kadete A taldeak aurretiko fasea taldea egin eta sendotzeko baliatuko du

Txintxarri

Ostadar Boleibola ataleko taldeak Gipuzkoako liga hasi aurretiko fasea jokatzeko ari dira. Hilaren 16an, goizean, kadete mailako A taldeak eta infantil mailako kideek errezel batek bereizita jokatu zituzten euren neurketak Maialen Chourraut kiroldegian.

Kantxa erdiko zelaian, Eider Aldazabalek zuzentzen duen kadete A taldeak 0-3 galdu zuen Usurbilen aurka.

Kadeteek ez dute prestakuntza fasea ongi hasi, baina pausoz pauso taldea egin eta ligari begira ari dira lanean urdin-beltzak. Aldazabalen lehen urtea da taldea zuzentzen eta azaldu digunez, kirolean eta elkarrekin jardun diren jokalariek zein jokalaria berriek osatzen dute. Horregatik, fasea taldeko kideen arteko harremana sendotzeko balio izan duela azpimarratu du: "Elkarrekin jolasten eta elkarrekin bizitzen ikasten ari gara".

Orain arteko jardunaldietan ez du neurketarik irabazi Ostadar A taldeak, baina aurkariei aurre egin diete eta puntu zein setak irabazi dituztela aipatu du: "Neurketak ez dira gogorrak izan, partidak borrokatu ahal izan ditugu eta zenbait talderi set batzuk egitea ere lortu dugu".

Denboraldia aurrera joan ahala, egoerak itzulia emango duenaren esperantza du kadete taldeak prestatzailearen hitzetan: "Partida batzuk irabaztera iritsiko garela espero dut". Izan ere, garaipena eskuratzeak jokalariei ilusio handia egingo diela azpimarratu du: "Set batzuk irabazteko zorian egon garenean irabazteko ilusioa ikusten zitzaien aurpegian. Eta lehenengo partida irabazteak indarra eman-



OSTADAR IPAR MARTXA

Ipar martxa eta ongizatea

Ostadar Ipar Martxa taldeko instruktoreek ikastaro berria eskaini dute. Oraingoan Alcer Gipuzkoa elkarteko hamabi kideekin egin dute lana talde urdin-beltzeko kideek eta ipar martxan lehen pausok emateko hastapen-ikastaroa aurrera eraman dute. Alcer Gipuzkoa giltzurrunetako gaitza duten pertsonen eta familiartekoen elkarte da. Kirol elkarteko instruktoreek aipatu dutenez, esperientzia positiboa izan da. Horrez gain, Alcerreko kideek aurrerantzean Ostadar Ipar Martxako jardueretan parte hartzeko aukera dutela ere nabarmendu dute.

Murgiondo herritarra laugarren izan da La Arenako proban

Euskal Herriko Surf Federazioak antolatutako EuskalSurf Gazte zirkuituko jardunaldia lehiatu zen, Zierbenako La Arena hondartzan (Bizkaia) eta Hodei Murgiondo Hernandez herritarra lehen lauen artean izan zen. Final laurdenak bere multzoko lehen postuan gainditu ostean, finalerdian ezin izan zen garaikurra borrokatzeko lehiatu sartu. Hurrengo hitzordua Karraspio hondartzan (Bizkaia) lehiatuko da oraindik zehazteke dagoen datan.



Murgiondo (eskuinean), podiumean.



Kadeteen neurketako irudia. TXINTXARRI

go dio taldeari garaipen gehiagoren bila joateko".

Ondoko zelaian ere ez zuten zortzerik izan infantilek. Nahiz

eta urdin-beltzak ederki borrokatu Lizardi Bi taldeak 2-3 irabazi zuen.

Hernanin kadete B taldeak ere ez zuen aldeko emaitzarik lortzea izan; Hernani 2 3-0 gailendu zen.

Euskal Ligan garaipena

Eta jardunaldiko poztasun bakarra Euskal Ligako II. mailan lortu zuen Ostadarrek.

Universidad de Navarraren aurka lehiatu zen talde urdin-beltza Iruñean (Nafarroa) eta gogor borrokatuz 1-3 (23-25, 25-23, 13-25 eta 22-25) gailendu zen.

Horri esker, Asier Acuriolak garaipenaren bidean jarraitzen du; taldeak ez du jardunaldirik galdu eta bere multzoko buru da D'Elhuyar Logroño taldearekin puntutan berdinduta.

Neurketan sartzea kostatzaie II. seniorreko kideei

Ostadar SKT eta Zast Oak taldeen arteko norgehiagoka izan da hilaren 16an, Maialen Chourraut kiroldegian. Bi asteko atsedena ez da onuragarria izan etxeko taldearentzat. Atsedendian hamalau puntuko alde atera die Zarauzko taldeak

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko 2. mailako taldeak bi asteko geldialdiaren ostean, Zast Oak taldearen aurka neurtu zituen indarrak. Neurketako bigarren laurdenean aurkariak neurketa hankaz gora jarri zuen partzial ederra eginez (3-13) eta azken txistura arte saiatu ziren arren, seniorrek ezin izan zioten emaitzari itzulua eman; Zarauzko taldeak 39-41 irabazi zuen neurketa.

Lehenengo laurdenean etxeko taldeak markagailuari eustea lortu zuen, 11-15. Bigarren laurdenean Zarauzko taldeak erritmoa eman zion neurketari, ordea, eta urdin-beltzek ez zuten jakin egoerari aurre egiten. 3-13ko partzialari esker, atsedendira hamalau puntuko errentarekin iritsi zen Zast, 14-28.

Tarte horretan pare bat aldaketa egin eta beste erritmo eta joko batekin atera zen jolastera etxeko taldea. Horri esker, hirugarren eta laugarren laurdenean jabe izan zen Ostadarreko taldea. Azken minutura arte borrokatu zuen -10-6 eta 15-7 izan ziren partzialak- eta partida berdintzeko zorian egon zen. Baina azkenean zarauztarrak



Ostadarreko jokalaria saskira jaurtitzen. TXINTXARRI

bi puntuko errentarengatik gailendu ziren.

Ostadarreko prestatzaile Beñat Eleiceguik azaldu duenez, "neurketa arraroa izan zen. Norgheia-gokarik gabeko tarte asko nabaritu genuen partidua hasi ahala, partidaren eta txapelketaren erritmoa galduta atera zen taldea".

Gainera, atsedendian hamalau puntu bakarrik eginda irabazteko aukerarekin iristea zaila dela ohartarazi du. Horregatik jokalariek bigarren zatian egindako lana nabarmendu du:

"Neskek ederki erakutsi zuten beraien borrokatzeko grina eta partidari buelta emateko zorian egon ziren".

Lau jardunaldi jokatu ditu Ostadarrek eta neurketa bakarra gaitzitu du. Abenduko etenera arte, seniorrek ez dute atsedena gehiagorik izango eta lehiatzeko erritmoa hartuz gero, lehen postuetan borrokan egon daitekeela uste du urdin-beltzen prestatzaileak. Baina horretarako lan egin behar dela argi du Eleiceguik: "Orain lanean gogor jarraitzea besterik ez da geratzen".

Ostadar Kadete neskek, berdinketa gazi-goza

Ederki jokatu arren, puntu bakarrarekin konformatu behar izan du talde urdin-beltzeko kadeteak

Txintxarri

Ostadar SKTko kadete nesken taldeak bi jardunaldi egin ditu sailkapenean punturik gehitu gabe. Hilaren 16an, zoritxarra alde batera utzi, zelaian astean zehar egindako lana erakutsi eta banako berdinketa eskuratu zuen Usurbilen aurka. Ostadarreko Nahia Calle Muñoa entrenatzailearen hitzetan, "puntu gazi-goza bat eskuratu genuen; ondo egindako lanaren sari, baina gehiago merezi genuenaren sentsazioarekin". Izan ere, epaileak azken txistua jo arte borrokan izan ziren talde urdin-beltzeko jokalariek.

Michelin kirol gunean jokatu zen neurketan usurbildarrek eman zuten aurreneko zartada; lehen minutuetan markagailuan aurreratuta ziren aurkaria. Talde urdin-beltzeko arduradunak azaldu modura, "golak min egin zigun arren, taldea baloiaren jabe egin zen emaitzari buelta emateko jarrerarekin".

Era horretara, astean zehar landutako jokaldiak partidaren aurrera eramane eta aukera ugari sortu zituzten Ostadarreko jokalariek. "Aukera asko galdu genituen: zutoinari emanez, haien atezainaren geldiketa eta ate aurrean izan genituen banakako lehia batzuei ez genien etekinik atera".

Neurketa amaitzeko 10 minuturen faltan, iritsi zen lanaren fruitua eta berdinketako gola



Joklariak baloiarengatik borrokan. TXINTXARRI

egin zuen Iugatz Almagro Fernandez aurrelariak.

Hala ere, ez zuten amore eman eta azken minutura arte saiatu arren, urdin-beltzek ezin izan zuten garaipeneko gola egin. Kadete taldea multzoko azken postuetan da lau punturekin, baina Callek nabarmendu duenez, "denok dakigu gehiago nahi dugula. Ez gara edozerekin konformatzen". Hurrengo jardunaldian euren indarra erakusteko aukera ederra izango du talde urdin-beltzak, sailkapen buru den Antiguoko KE B izango du aurrez aurre. "Ez gara beldur, gure lana ondo egitera goaz, gure filosofia mantenduz," adierazi du kadete taldeko arduradunak.

Horrez gain, futboleko jokatu nahi duten herriko neskei, Ostadar SKT aukera bikaina dela jakitera eman nahi die entrenatzaileak.

Beltzak Errugbi taldeko ordezkariak ederki jardun dira

Euskal Ligako partidetan euren aletxo jarri dute herriko jokalariek. Saletak, aldiz, Uruguai eta Fiyiren aurka jokatu du

Txintxarri

Beltzak RTko errugbilariak denetarik emaitzak izan dituzte hilaren 16an lehiatutako Euskal Ligako neurketetan.

Lehen mailako Gipuzkoa Sortzen taldeak 22-30 garaitu zuen Getxo. Bizkaian jokaturako norgehiagokako zerrendan sei he-

rritar izan ziren: Mikel Ibisate Alday, Jokin Beloki Chivite, Gabriel Gavilan Manso, Julen Espinosa Tena, Beñat Arozena Peña eta David Vega Santos. Lehen lauak hamabostekoan atera ziren eta Belokik kapitain lanak egiteaz gain, entsegu bat egin zuen.

Zarauzko Asti zelaian, aldiz, txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten 18 urtez eta 16 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz taldeek. Lehen faseko azken neurketan zaharrenak nagusi izan ziren Hernaniren aurka eta garaipena erdietsi zuten, 23-0. Lau herritar izan ziren lehiatzen eta Lander Zabala Ugartemendia zein Eneko Sanchez Martinezek entsegu bana egin zituzten.

Gazteek, aldiz, ezin izan zituzten hernaniarrak gaitzitu, 21-54. Erik Perez Duran herritarrak hiru gautzate lortu zituen partidaren.



Saletak, saria jasotzen.. BELTZAK RT

Jokalaririk onena

Alex Saleta Atorrasagasti herritarrak, aldiz, Espainiako selek-

zioko bi lehiatan borrokatu da azken asteetan.

Hilaren 16an, Fiyiren aurka hamabostekoan jokatu zuen Valladoliden (Gaztela eta Leon). Lehen zati borrokatuaren ostean, 10-7 joan ziren atsedendira. Baina Fiyik itzulua eman zion partidari eta 19-33 garaitu zituen lehoiak. Neurketa amaitzean, Saletak selekzioko jokalaririk onenaren saria jaso zuen.

Eta bi aste lehenago, Madrilen Uruguaiaren aurkako garaipenean (33-24) ere parte hartu zuen herritarrak; 59. minutuan atera zen zelaia.


KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Javier
Zorionak Zata! Gure etxeko rekadista ibilgailu gabe? Eskerrak sustoa pasa zaigun; ziurtatuta ditugu enkarguak etxean! Baina bihar, kotxea gure kontu! Txooott!



Linda
Hainbeste itxarondako eguna iritsi da! Zorionak bihotza!! Dantza ikuskizun zoragarria ikusteko irrikitan gaituzu :-)

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

- | | |
|--|---|
| Internet | Posta elektronikoa |
| · txintxarri.eus/ zorionagurra. | · Mezua bidali txintxarri@ttakun. eus helbidera, eta idatzi: izen- abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua. |
| · Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman. | · Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean. |

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|----------------|-----------------|
| OSTIRALA, 22 | GIL |
| LARUNBATA, 23 | DE MIGUEL |
| IGANDEA, 24 | DE MIGUEL |
| ASTELEHENA, 25 | ACHA-ORBEA |
| ASTEARTEA, 26 | KNIESE |
| ASTEAZKENA, 27 | GANDARIAS-URIBE |
| OSTEGUNA, 28 | ORUE |

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00
Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza
6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

- UDALAREN TELEFONOAK**
- ERREGISTROA: 943-37 16 29
 - EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
 - KIROLDEGIA: 943-37 61 82
 - MANUEL LEKUONA
 - KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
 - GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
 - KIUB: 943-36 16 05
 - UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
 - MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

- LARRIALDI TELEFONOAK**
- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
 - DYA: 943-46 46 22
 - GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
 - UDALTZAINAK: 943-36 24 42
 - ERTZAINZAK: 943-53 88 40
 - SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Zatoz txistua jotzera
Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaizatzen. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | 7 | 2 | | | | | 6 |
| | 1 | | 4 | | | | 9 | |
| | | | | 3 | 7 | 2 | 8 | 1 |
| | 3 | 5 | | | 9 | | | 1 |
| 4 | | 8 | | 7 | | | | 3 |
| | 2 | | | 5 | | 8 | 6 | |
| 9 | 4 | 2 | | 1 | | 7 | | |
| | | 6 | | | 5 | | | 3 |
| | | | 7 | | 8 | | | 4 |

Sudoku10.net

ESKUTITZA

Promes faltsuen uholdea

XABIER KARRIL

Politikariak eta enpresariak adituak dira ardurak saihesten. Sinetsarazi nahi digute ez dutela zeri-kusirik Valentziako denboraleak eragindako txikizioarekin, ezta berrehundik gorako hildakoeekin ere. Beren ardura ezkutatu nahian, guzti honen eragilea "hondamendi natural latz" bat dela diote.

Ukaezina da denborale horrek dimensio naturala duela: fenomeno meteorologiko gisa, hein batean, giza-jardueretik beregaina dela esan daiteke. Naturala ez dena, ordea, zera da: langileria urpean gelditu daitekeen eremu batean pilaturik edukitzea bertan eraikitzea merkeagoa delako; jendea lantokira joatera behartzea, alarma jakinarazpenen aurrean ezkusiarena eginez, irabaziek ezin dutelako egun bakar batez ere itxaron.

Laburbilduz, irabazi ekonomikoak langileen bizitzan aurretik lehenestea erabaki politiko bat

da, eta hala ulertu behar dugu. Orain, ordea, ohi denez, erabaki hori hartu zutenak gu limurtu nahian dabilta "denok ontzi berean gaude" edota "denok batera egin behar dugu arraun" bezalako esaldiekin. Haatik, bihar bertan ez dute zalantzarik egingo, eta zure bizitza arriskuan jarriko dute berriz ere euro batzuk gehiago irabaztearen truke.

Egoera honen aurrean ez dezagun utz ezinegon honek ezerezean amai dezan. Soilik politikari profesionalen eta enpresarien irismenetik kanpo dagoen antolakuntzaren bitartez lortuko dugu amorrutik hau behar bezala bideratzea, hala besterik ez baitugu lortuko irabazietan eta heriotzean oinarritutako haien munduari aurre egingo dion alternatiba osoa eraikitzea.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauekin publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plaza dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabilta. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

LANA

ESKARIA

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

DESAGERPENEA

Ipar Martxako makilak ostu edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

HEZKUNTZA

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian

ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Zortzi eserleku dituen taxi lizentzia bat saltzen dut. Usurbilen lan egiteko. 677 37 34 66.

AZOKA TXIKIA


Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

MANTTANGORRI HIRIBUSA

Hiribusa



Eskola egunak

| Antxisu | Olatxoaldea | Institutua | Antxisu |
|---------|-------------|------------|---------|
| 7:40 | 7:47 | 7:50 | 8:06 |

Lanegunak

| Antxisu | Olatxoaldea | Zabaleta | Atsobakar | Antxisu |
|---------|-------------|----------|-----------|---------|
| 8:20 | 8:33 | 8:37 | 8:43 | 8:55 |
| 9:00 | 9:13 | 9:17 | 9:23 | 9:35 |
| 10:20 | 10:33 | 10:37 | 10:43 | 10:55 |
| 11:00 | 11:13 | 11:17 | 11:23 | 11:35 |
| 11:40 | 11:53 | 11:57 | 12:03 | 12:15 |
| 12:20 | 12:33 | 12:37 | 12:43 | 12:55 |
| 13:00 | 13:13 | 13:17 | 13:23 | 13:35 |
| 13:40 | 13:53 | 13:57 | 14:03 | 14:15 |
| 14:20 | 14:33 | 14:37 | 14:43 | 14:55 |
| 15:00 | 15:13 | 15:17 | 15:23 | 15:35 |
| 15:40 | 15:53 | 15:57 | 16:03 | 16:15 |
| 16:20 | 16:33 | 16:37 | 16:43 | 16:55 |
| 17:00 | 17:13 | 17:17 | 17:23 | 17:35 |
| 18:20 | 18:33 | 18:37 | 18:43 | 18:55 |
| 19:00 | 19:13 | 19:17 | 19:23 | 19:35 |
| 19:40 | 19:53 | 19:57 | 20:03 | 20:15 |
| 20:20 | 20:33 | 20:37 | 20:43 | 20:55 |

Larunbatak

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Iñigo Ibarburu eta Egoitz Epelde.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Gastronomía
Aterpea merkatarien elkarteak X. Pintxo Bidea aurrera eramango du, udalarekin lankidetzan. Sei ostalaritza establezimendutan jaki landu eta goxoak dastatu ahalko dituzte; pintxo bakoitzak 3 euro balio ditu.
Herrian barrena, goiz eta arratsalde, hilaren 22tik 24ra.

LASARTE-ORIA Musika
Xumela koruak eta Oaintxe in deu! txarangak elkarrekin ospatuko dute Santa Zezilia Eguna, musikarien zaindariarena.
Sagardotegi kalea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Extremadura Etxeko kideek VIII. Txerri Hiltzearen Jaia ospatuko dute:
19:00etan, Txerri boda: batean eta bestean hitzaldia.
20:00etan, luntxa.
Extremadura Etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Hika Antzerki Taldeak Zorretan antzezlaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Ospakizuna
VIII. Txerri Hiltzearen Jaia ospatuko dute:
09:30etan, ogi mamiak prestatzea.
10:00etan, perrunillak eta pattarra.
11:00etan, ogi mamiak dastatzea.
11:30etan, hestebete tailerra.
14:30etan, herri bazkaria: eltzekaria, 16 euroren truke.
16:00etan, karaokea.
Extremadura Etxea, 09:30etan.

LASARTE-ORIA Gimnasia
Saito gimnasioko kideek diziplina ugari (Jumping, Zumba, Bodyfitness...) erakusteko saio irekia emango dute.
Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.



LASARTE-ORIA Antzerkia
Hika Antzerki Taldeak Zorretan antzezlaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek atari digitalean eros ditzakete herritarrek.
Gaur, hilak 22, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Solasaldia
Jose Manuel Bujanda donostiarra gonbidatuko du Oreki fundazioak, *Lo siento, confieso que he vivido (yo me he solidado equivocarse)* hitzaldia ematera.
Ganbo Iturri elkarte (Kale Nagusia, 3), 10:30ean.

LASARTE-ORIA Tailerra
Nerabeentzako Autodefentsa Feminista tailerra egingo dute, euskaraz, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Izena eman nahi dutenek 943-36 39 58 telefono zenbakira dei dezakete edo emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbidera idatzi.
Emakumeen Zentroa, 10:30etik 14:30era.

LASARTE-ORIA Literatura
Literatur lehiaketetan parte hartu dutenei sariak emango dizkie Lasarte-Oriako Udalak.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan, *Una bofetada no es nada* antzezlaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 3 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Musika
Psicoacoustic taldeak The Beatles-en abesti ezagunak osatutako kontzertua emango du. Sarrera doakoa da.
Jalgi kafe antzokia, 19:00etan.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Ospakizuna
VIII. Txerri Hiltzearen Jaia:
11:00etan, perrunillak, salda eta pattarra.
14:30etan, herri bazkaria: pintxo morunoak, urdaiazpiko errea eta postrea, 18 euroren truke. Bazkalostean txerri baten besoa zozkatuko dute.
Extremadura Etxea, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Musika
Santa Zezilia musikarien zaindaria oroitu du Alboka Abesbatzak.
San Pedro parrokia, 12:30ean.

LASARTE-ORIA Zinema
Una familia monstruosa filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
La habitación de al lado filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 25

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea
Lasarte-Oriako Udalak elkarretaratzea deitu du Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean.
Okendo plaza, 12:00etan.

ASTEARTEA 26

LASARTE-ORIA Banaketa
Euskarari puzka kanpainako saski eta karta jokoak banatuko ditu Errigora Lasarte taldeak.
Ttakunenea, 17:00-20:00.

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Bertso Astea hasiko da. Eskarmentu handia duten Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek aholkuak emango dizkiete bertsolaritzan hasiberriak diren gazteei. Mailu Arrutik aurkeztuko du ekitaldia.
Osasun zentro ondoko eraikineko 2. solairua, 18:00etan.

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA Bideoforumak
Biyak Bat jubilatuen etxean egingo dute jarduera hau, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan. Gaztelaniaz izango da. Helburuak, hauek: parte hartzaileen artean hausnarketa eta eztabaida sustatzea.
Biyak Bat, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Banaketa
Euskarari puzka kanpainako saski eta karta jokoak banatuko ditu Errigora Lasarte taldeak.
Ttakunenea, 17:00-20:00.

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Lasarte-Oriako Udalak Haurren Nazioarteko Eguna ospatuko du hilaren 27an, Antonio Mercero gunean; haur lasarteoriatarren eskubideak eta garapen aukerak balioan jartzeko ekimen sorta bat iragarri du horretarako.
Antonio Mercero aretoa, 17:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Literatura
Maria Garcia Ladero ipuin kontalariak 3 eta 5 urte arteko haurrentzako saioa aurrera eramango du. Izena eman nahi dutenek Udal Liburutegira bertaratu beharko dute.
Udal Liburutegia, 17:30ean.

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA Solasaldia
Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sistema publikoaren diagnostikoari buruzko mahai inguru ireki bat egingo du EH Bilduk. Hizlariak izango dira Rebeka Ubera, Karlos Iburguren eta Oihan Agirretxe.
Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Bertso Astearen barruan bertso poteoa egingo du Earra! eskolak, trikitilariarekin batera.
Erdigunea, 18:30ean hasita.

LASARTE-ORIA Bakarriketa
Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai aktoreek *Ztandap* bakarriketaren emanaldia egingo dute, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan. Sarrerek 3 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Bertso Astearen barruan I. Imanol Lizardi Sariketa egingo dute, 16 eta 18 urte arteko bertsolari gazteentzat. Sei hauek ariko dira: Maddi Lasa eta Aratz Arzelus gipuzkoarrak, Iraide Onaindia eta Hegoi Amabizka arabarrak, Kelmene Abaitua bizkaitarra eta Kattalin Lizarraga nafarra.
Mirentxu, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren emanaldia egingo du: *Soy Nevenka* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Jaialdia
Jalgune Elkarteak *Larunbata gustuko ditugulako* jaialdia ospatuko du. Bertaratu nahi dutenek gonbidapenak eskuratu behar dituzte kultur etxeko leihatilan.
Kultur etxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Gastronomía
Lasartearra elkarteak barrikotea egingo du. Izen ematea hilaren 27a baino lehen egin behar dute herritarrek, elkartearen egoitzan, 30 euroren truke.
Eribera kalea 10, 20:30ean.

Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da


Batu gaitezen geldiarazteko

2023. urtean, 6.513 salaketa jaso ziren Euskadin emakumeen aurkako indarkeriatatik.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



AZAROAK 26
18:00 ANBULATORIO ONDOKO
ERAIKINAREN BIGARREN
SOLAIRUAN
BERTSO SOLASALDIA

AZAROAK 28
18:30 ERDIGUNEAN
BERTSO-POTEDA

AZAROAK 29
18:00 MIRENTXUN

IMANOL LIZARDI

BERTSOLARI GAZTEEN
LEHENENGO SARIKETA

BERTSO

ASTEAN

LASARTE-ORIA

